



ALBOAN

Genero-berdintasuna sustatzea. Helburu bat baino, garapen eskubide bat



Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 koaderno osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (komikiak, posterrak, ikerketak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Hezkuntza baliabideak ALBOAN

0. Milurtekoko Garapen Helburuak:
Aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua? (2007)
1. Zero Pobrezia.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
2. Lehen Hezkuntza guztiontzako.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)
3. Genero-berdintasuna sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

**Genero-berdintasuna sustatzea.
Helburu bat baino,
garapen eskubide bat**



Argitaratzailea:

ALBOAN

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Rosa María Mújica, CINEP eta **ALBOAN**

Data: Urria 2007

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-3111-07

ISBN: 978-84-611-9818-4

Lan honen erreproduktzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Genero-berdintasuna sustatzea.

Helburu bat baino, garapen eskubide bat. ROSA MARÍA MÚJICA	5
I. Ezberdintasunetik abiatuta	5
II. Genero-berdintasunaren auzia	10
III. Zertaz ari gara tratu- eta aukera-berdintasunez hitz egiten dugunean	11
IV. Ekitaterako oztopoak	12
V. Zer behar da berdintasunerako bidean?	16
VI. Sexismoa hezkuntzan	17
VII. Nola sustatu genero-berdintasuna hezkuntzatik?	18
VIII. Ekitaterako hezteko helburu duten nazioarteko eraginak	20
IX. Giza Eskubideetan eta genero-ekitatean oinarritutako Hezkuntza, subjektibitateak eraldatzeko prozesu gisa	22
Eztabaidarako eta ekintzarako galderak	25
Emakume bakegileak. CINEP	27
Glosarioa	30



Genero-berdintasuna sustatzea

*Rosa María Mújica**

I. EZBERDINTASUNETATIK ABIATUTA

XXI. mendean, gertatu diren aurrerapen guztiak gertatu arren, planetaren errealitatea ezberdintasun sakonez beteta dago hainbat arrazoi direla tarteko: arrazari dagozkionak, ekonomikoak, erlijiozkoak, sozialak, kulturalak eta generoaren ingurukoak.

Genero-ezberdintasunak daudela aipatzen dugunean, gizarte bakoitzean gizonezkoari eta emakumezkoari esleitzen zaizkion rolen, ezaugarrien gainean eraikitzen denaren ezberdintasunez ari gara. Gizonezkoa edo emakumezkoa izatearen gaineko egituratze sozial horrek emakumea baztertzea dakar, hau da, gizonezkoen azpian, bigarren planoan, kokatzea dakar.

Gizarteak gauzatzen duen eraikitze soziala da genero-edukiaren eraikitzea, eta gizonezkoak edo emakumezkoak gizarte zehatz batean nolakoa izan behar duen zehazten duen moldeez beteta dago. Hori dela eta, bakoitzarentzako jarrera eta portaera ezartzen dira, hau da, lagunen bidez, eskolaren bidez, erlijio-erakundeen bidez, kirol-erakundeen bidez, erakunde politiko eta sozialen bidez, komuni-

* Rosa María Mújica, Peruko Giza Eskubide eta Bakerako Hezkuntza Institutuko partaide da. Hezkuntza elkarte hau, 1985. urtean sortu zen Giza Eskubide eta Demokrazian oinarritutako Hezkuntza baten sustapen, hedapen eta garapenaren alde lan egiteko. Besteak beste, Quispicanchi-ko (Cusco) landa eskoletan genero ekitatea sustatzen duen proiektuaren buru da. Proiektu honen bidez, landa eremuan bizi diren neska indigenek lehen hezkuntzan duten iraunkortasuna areagotzea lortu nahi da.

kabideen bidez “gurasoengandik seme-alabengana” transmititzen den “izateko modu” berezigarria.

Gizonekoen eta emakumezkoen esku uzten diren alderdi sinboliko horiek bizi behar den errealitatean islatzen direnean, emakumezkoen eskubideen eta duintasunaren aurkako egoerak dira. Hain zuzen ere, horrek esan nahi du emakumezkoak direla munduko pertsona analfabeto gehienak, ahulezia eta pobrezia handiagoko egoeran daudela, indarkeria-maila altuagoak pairatzen dituztela, eskolatze-urte gutxiago dituztela, soldata txikiagoak dituztela, eta, azken batean, “globalizatutzat” hartzen den munduko gizarte gehienetan ageriko desabantaila-egoeran daudela.

Hori guztia islatzeko, ikus ditzagun datu estatistiko batzuk:

a. Analfabetismoa

Pobrezia eta genero-bereizkeria oso estu lotuta daude. Irakurtzen ez dakiten munduko mila milioi helduetatik bi heren emakumeak dira. Oro har, neskak izan ohi dira eskola uzten lehenengoak, familiak eskolako gastuei aurre egin ezin ditenean. Halaber, haiek izan ohi dira osasun-zentrora azkena eramaten dituztenak arreta medikoa behar dutenean.

Errealitate hori Perun edo gisa horretako herri batean ikusten dugunean, herritar analfabetoen %6,1 gizonezkoak dira eta %17 emakumezkoak.

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Hegoaldeko Asia	%37	%63
Ipar Afrika eta Mendebaldeko Asia	%32	%56
Saharaz hegoaldeko Afrika	%33	%53
Ekialdeko Asia eta Ozeania	%9	%24

b. Langabezia

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera, Latinoamerikako emakumezkoen langabezia-tasa gizonezkoena baino %47 handiagoa da. Praktikan, horrek esan nahi du lan egin behar duten bost emakumetik batek ez duela lanik, eta emakumeen %10,1 langabezian dagoela; gizonen artean, ordea, %6,7k du arazo hori.

Ekialde Ertainean eta Iparraldeko Afrikan, ekonomikoki aktiboak diren 100 gizonetako 40 emakume baino ez daude. Emakumezkoen %16,5 langabezian dago, eta gizonetako %10,5 dago egoera horretan.

Bestetik, Latinoamerikan lan egiten duten emakumeen %52 lan informalak egiten aritzen da. Eta lanaren %16 etxeko lanak dira. Bitartean, Perun adibidez, etxeko lanetan aritzen diren pertsonen %97 emakumezkoak dira, eta %3 gizonetakoak.

c. Diru-sarrerak

Latinoamerikan, gizonetako irabazten dutenaren %64 irabazten dute emakumezkoek.

Kopuruetatik haratago, mendekotasunezko errealitate sinbolikoaren berri ematen diguten emakumezkoen adierazpenak jasotzen ditugu maiz herri-hezkuntzan aritzen garenok, emakumeek egiazkotzat eta emakume izatearen ezaugarritzat hartzen duten errealitatea, alegia. Adierazpen hauek dira, besteak beste, egoera hori islatzen dutenak: “nik ezin dut, emakumea naiz”, “emakumeek etxean geratu behar dute”, “gizontxoek eskolara joan besterik ez dute egin behar; emakumeek beren neba-ahizpak zaindu behar dituzte”, “gizonei plater handiena eman behar zaie; emakumeok nahikoa dugu sobran geratzen denarekin”, “bere emaztea naiz, zer egingo diot, jotzen banau besterik gabe onartu behar dut”, “etxean gizonak agintzen du”.

Generoari buruzko irizpideak ez dira aldaezinak; izan ere, aldatu egiten dira eta eboluzionatu egiten dute. Gizon-emakumei buruzko itxaropenak aldatu egiten dira. Baina prozesu hori ez da berez sortzen. Bultzatu egin behar da eta bertan aktiboki parte hartu behar da, berdintasunean gerta dadin eta generoen arteko berdintasuna eraiki dadin.

Genero-berdintasuna ez da giza garapenaren helburu desiragarria soilik; haren helburu nagusia da. Genero-ezberdintasuna da pobrezia endemikoaren iturrieta-ko bat, baita ezberdintasunarena, hazkunde ekonomiko txikiarena, GIBa gailentzearena, heriotza goiztiarrarena, nahi gabeko haurdunaldiena edota gobernu ezegokiena ere. Giza eskubideen ukatzea eta giza garapenerako oztopoa da genero-ezberdintasunaren modu oro. Generoaren gaia funtsezkoa da herriak eta Estatuak eraberritzeko.

Gizonen eta emakumeen arteko harreman material eta sinbolikoen sistema gisa definituta dago generoa. Gizartearen alderdi guztiak egituratzeko indar handia du generoak. Genero-berdintasunak emakumea bultzatzeko eta pobrezia-ri aurre

egiteko duen garrantzia aitortzen dute Nazio Batuetako Erakundeko (NBE) agenziek (PNUD, 1997). Nazioarteko zenbait hitzarmenetan, herritartasuna hurbiltzailea izateko beharra aitortzen dute, erabateko parte-hartzearekin eskubide ekonomiko, politiko eta sozialen erabilita.

Emakumeena ez ezik, gizarte osoaren aurrerakuntza oztopatzen dute genero-bereizkeriak, baldintza eta aukerak eskuratzeko ezberdintasunak, indarkeriak, oinarrizko zerbitzuen gabeziak, politikan eta negozioetan emakumeek duten agerpen kaskarrak eta gizonen eta emakumeen arteko harremanen ezaugarri den botere-desorekak. Argi dago gizarte-erdiaren talentuak, energiak eta helburuak bahituta izateak giza garapena oztopatzen duela.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bidezkoa da, eskubide bat da, berez merezi den helburua da, eta giza garapenaren eta giza eskubideen bihotzera doa.

Berdintasunerako eta emakumeen boterea handitzeko konpromisoak hartu zituen nazioarteko komunitateak 90. hamarkadako munduko gailurretan eta biltzar globaletan. Premiazkoa da Emakumeen Kontrako Bereizkeria Modu guztietan buruzko Konbentzioan (CEDAW)¹ azalduko helburuak eta Milurtekoko Helburuak adierazten laguntzea, erreforma politiko espezifikoetan eta emakumeentzat, bereziki emakume pobreetzat, ezberdintasun bat dakarten operazio-programetan.

Azken 30 urteotan, NBEak emakumeari buruzko munduko lau biltzar deitu ditu. Genero-berdintasunaren kausa nazioarteko gai-zerrendan txertatzeko balio izan dute biltzar horiek.

¹ 1979an onartu zen eta 1981ean jarri zen indarrean. Legez loteslea den lehenengo tresna da, eta emakumeen estatusari buruzko hitzarmenetako garrantzitsuena, arrazoi hauengatik:

- Emakumeen eskubideak aitortzera, babestera eta bermatzera behartzen ditu Estatuak.
- Bereizkeria ezabatzeko neurriak hartzera behartzen ditu Estatuak.
- Kulturak eta ohiturek bereizkeria mantentzeko duten garrantzia aitortzen du eta gizonen eta emakumeen roletako estereotipoak ezabatzen behartzen ditu Estatuak.
- Giza eskubideen zatiezintasunezko izaera indartzen du.

Iturria: *Emakumeak munduko biltzarretan. Tokian tokikotik globalera*. Hegoa, 2006.

Emakumeari buruzko munduko biltzarrak		
Emakumeari buruzko munduko I. biltzarra	Mexiko, 1975	Emakumearen Nazioarteko Urtea. Biltzarraren eskariz, emakumearen NBEaren hamarkada (1976-1985). Hiru helburu: <ul style="list-style-type: none"> • Generoaren erabateko berdintasuna. • Emakumearen parte-hartzea garapenean. • Emakumearen ekarpena munduko bakearen indartzean.
Emakumeari buruzko munduko II. biltzarra	Kopenhague, 1980	1975ean ezarritako ekintza-planaren ebaluazio partziala. Bermatutako eskubideen arteko ezberdintasunari eta emakumeak eskubide horiek erabiltzeko duen gaitasunari aurre egiteko, neurri zehatzak hartzeko premia ezarri zen honako esparru hauetan: <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza jasotzeko berdintasuna. • Lan egiteko aukerak. • Osasun-arretarako zerbitzu egokiak.
Emakumeari buruzko munduko III. biltzarra	Nairobi, 1984	Hamarkadako lorpenen azterketa eta ebaluazioa. Genero-berdintasunak bizitzaren esparru guztiak barne hartzen dituela aitortu zuen. Norabide horretaranzko neurriak hartzea sustatu zen.
Emakumeari buruzko munduko IV. biltzarra	Beijing, 1995	Emakumeentzako neurri espezifikoak bultzatzeko eskema gainditu zen. Erabakiak hartzeko prozesuetan emakumea berdintasunean txertatzeko premia aitortu zen. Beijingeko Ekintza Plataformaren sorrera onartu zen, gobernuak eta gizarte zibilak neurri zehatzak hartzeko lehentasunezko hamabi mailarekin.

Iturria: geuk egindakoa.

Uste dugu genero-berdintasuna garapenaren gai-zerrendan txertatu dela hura “politizatuz” joan den heinean, gizakiaren askatasunak eta oinarrizko duintasuna, berdintasunerako eta bereizkeriarik ez jasateko eskubidea eta, azken batean, garapenaren kontzeptua bera eraikitzen duten giza eskubideak txertatu direnean.

Hala ere, asko dago egiteko. Oso gizarte ezberdinetan bizitzen jarraitzen dugu, eta gizarte horietan gizonenak baino soldata txikiagoekin bizi dira emakumeak, mundu pribatuan soilik bizitzera behartuak daude maiz, etxeko indarkeriaren, nahi gabeko haurdunaldien eta mendekotasun ekonomiko handiaren arriskupean. Emakumeak gizonak halako hirutan aritzen dira ordaindu gabeko lanetan. Enpresaren eta politikaren esparruetan, gizonak nagusi dira.

Erronka politikoa eta etikoa da gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ekonomikoa, soziala eta politikoa bilatzea.

II. GENERO-BERDINTASUNAREN AUZIA

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdian, generoa sexuaren ondorioz gizonen eta emakumeen arteko asimetria eta ezberdintasun nabarmenek sortutako galdera teoriko-metodologikoen erantzun gisa hartzeko ikuspegia sortu zen.

Generoa honela defini daiteke: sexuaren oinarri biologikoaren gainean, gizartean eta nortasun subjektibo kolektiboetan maskulinitasuna eta femininitasuna baloratzen dituen eraikuntza kultural, sozial eta historikoa. Gizon-emakumeentzako balorazio sozial asimetrikoa eta haien artean ezartzen den botere-harremana ere baldintzatzen ditu generoak.

Gainera, bestelako harreman sozialetan elkartuta eta inplikaturik daude genero-harremanak: ekoizpen-, etnia-, nazio-, erlijio- eta belaunaldi-harremanetan. Genero-sistema, berez, ez dago isolaturik; harreman sozialeko bestelako sistemekin lotzen da.

Emakumea eta gizona egoera bereberetan daudela esan nahi du genero-berdintasunak, giza eskubideak erabat erabiltzeko aukera berdina dituztela, garapen politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala bultzatzen lagundu dezaketela eta emaitzez baliatu daitezkeela. Beraz, gizarteak gizonaren eta emakumearen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak eta bakoitzak duen zeregina inpartzialtasunez baloratzea da genero-berdintasuna.

Horregatik, genero-berdintasuna lortzeko, garapenaren onurez baliatzea, erabaki publiko eta pribatuak hartzea eta boterera heltzea oztopatzen duten desabantaila historiko eta sozialak orekatzea ahalbidetzen duten genero-ekitateko hainbat neurri ezarri behar dira. Genero-berdintasunerako bidea da, hortaz, genero-ekitatea.

III. ZERTAZ ARI GARA TRATU- ETA AUKERA-BERDINTASUNEZ HITZ EGITEN DUGUNEAN

Emakumeek ordaindutako lanetan izan duten parte-hartzearen hazkundearekin batera genero-berdintasunaren sustapenaren garrantzia ere hazi da. Eskubide, ardura eta aukera berdinak dakartza genero-berdintasunak, emakumeentzat nahiz gizonentzat. Genero-berdintasuna ez da soilik emakumeei dagokien gaia; gizarte osoari dagokio. Ez du esan nahi emakumeak eta gizonak berdin-berdinak direnik, baizik eta bakoitzaren eskubideak, ardurak eta aukerak ez daudela emakume edo gizon jaiotzearen mende.

Beste ikuspegi batetik, desberdintasun errealak sortzen dituzten hierarkien aurrean gaude. Zentzu horretan, botere-arazoa da berdintasunaren arazoa. Boterea duenarengan eta ez duenarengan datzan ezberdintasuna da –sozialki garrantzitsua den ezberdintze gisa eraikitakoa–, ororen gainetik, generoa. Modu horretan, politiken kontua izaten hasten da sexu-bereizkeria. Berdintasunaren ikuspegia politika publiko guztietan txertatu behar litzateke, eta emakumeen parte-hartzea sustatu galarazi zaizkien esparru sozial guztietan, batez ere, erabakiak hartzen diren horietan.

Emakumeen eta gizonen kezkak eta esperientziak maila politiko, ekonomiko eta sozial guztietako politikak eta programak gauzatzeko, aplikatzeko, gainbegiratzeko eta ebaluatzeko elementu integratzaileak izan daitezen bideratutako estrategia da genero-ikuspegia txertatzea, emakumeak eta gizonak onuradunak izan daitezen eta ezberdintasunak betiko iraun ez dezan.

Genero-ikuspegia duen politikarik ba al dago? Nola hautemango genituzke? Hona hemen genero-ikuspegia duten politiken definizioa: baliabideak esleitzean, zuzenbide zibileko eskubideetan eta parte-hartze eskubideetan, botere-, agintaritza- eta gizon-emakumeen lanaren balorazio-postuetan generoen arteko birbanatzea sustatzeko agintarien borondate esplizitua dutenak.

Etorkizun gisa, lortu nahi den helburu gisa hartu behar da berdintasuna. Ekitatea, ordea, berdintasuna lortzeko tresna da. Berdintasuna bermatzeko ekintza bere-

ziak dakartza ekitateak. Politika publikoen zeregina hor abiatzen da. Ekitatea eta berdintasuna bereizten ez badira, ez dira ondo identifikatuko berdintasuna lor-
tzeko estrategiak.

Historikoki, erabakitzeke esparruetatik eta Estatu-politiketatik baztertu du emakumea publiko-pribatu dikotomiak. Emakumea esparru publikoan txertatzeak ez du aldatzen etxeko amaren jarduera; aldi berean betetzen ditu bi lanak –emakumeen jardunaldi bikoitza deritzona-. Bestalde, esparru publikoan aukeren berdintasun-politikak aplikatzean agerian geratzen da esparru pribatuaren kontua eta emakumeen lanetan duen eragina.

Zentzu horretan, aukeren berdintasuna sustatzea uste hauetan datza:

- Aitorrutako berdintasun-printzipioak ez du berdintasun errealik sortzen.
- Ezberdintasuna sortzen duten arrazoiak ez dira modu biologiko hutsean ulertzen, baizik eta kategoria sozialetatik eta mugimendu sozialak berak eraikitako mekanismoetatik eratorrita.
- Bereizkeria berez sortzen duten faktore sozialak daudela onartzen du, batez ere, zuzenean aurre egin behar zaien faktore horiek.

Zeharkakotasun printzipioan datza gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea. Politika eta neurri orokor guztietan aukera-berdintasuna sustatzea dakar printzipio horrek. Guraso-roletan, familiaren egituran, erakundeetako ohi-
turetan, lanaren eta denboraren antolakuntzan sustatu behar dira aukerak epe luzean, ez baitagokie emakumeei, beren garapen pertsonalari eta beren independenziari; gizarte osoari dagokio. Hau da, subjektuek elkarri eragiten dioten esparru sozial guztietan aplikatu behar da gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa.

IV. EKITATERAKO OZTOPOAK

Ekitatea oztopatzen duten zenbait oztopo daude, hainbat harreman eraikitzean emakumeen parte-hartzea eragozten edo mugatzen dutelako. Hauek dira:

- **Pobrezia**

Diru-sarrerak banatzean, desberdintasun gorakorra dago. Horrek ahulak ahulago bihurtu ditu. Amen eta haurren heriotza-tasa gorakorretan, elikatzeko-mailen

beheranzko joeran eta eskola-uztean islatzen da munduko alde askotako ekonomia nazionalen hondatzea.

Emakumeak dira pobreenak. Bizi duten baztertze-egoeraren eta aukerarik ezaren ondorio da hori. Horregatik, okerren ordainduta dauden lanak egitera edo, lanik ezean, langabeziara behartuta daude. Lan-trebakuntza egokia izateko aukera gutxiago dituzte emakumeek. Horrek lan-merkatuan sartzeko aukerak murrizten dizkie.

Azkenean, egoera hori ez dagokie emakumei soilik, gizarte osoari baizik; izan ere, pobrezia-egoerak eragina du seme-alabengan.

Emakumeek gizonengandik duten mendekotasuna areagotzen du pobrezia-egoera horrek. Askotan entzuten ditugu etxeko indarkeria pairatzen duten emakume asko, egoerari eutsi behar diotela esanez, bestela haien seme-alabak ez luketelako izango zer jan eta nola bizi.

• Indarkeria

Giza eskubideen eta pertsonaren oinarrizko askatasunen ageriko urraketa dira familia-indarkeria eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeria. Sortzen dituzten kalte pertsonalez eta familiarrez gainera, gaitasunen garapen osoa eta eskubideak erabiltzea oztopatzen dute.

Makina bat emakumerengan eragina du indarkeriak, baina, bereziki, babes gutxien dutenengan. Sustrai kultural eta ekonomikoak ditu, eta larriagoa da segurtasun ekonomikorik eta kulturalik ez dagoen lekuetan.

Gizonen eta emakumeen artean botere-banaketa desorekatua izan da historian, eta horren isla da emakumeen kontrako indarkeria, eta klase sozial, gizarteko sektore, arraza, kultura-maila, diru-sarrera, hezkuntza-maila eta adin guztiei erasaten die.

Emakumeek berek onartzen dute askotan etxeko indarkeria, eta egoera hori “emakume izatearen baldintza” gisa ulertzen dute. Peruko Cusco inguruko hogeita hamar nekazaritza-komunitatetako hainbat emakumeri galdetu zitzaientzen beren seme-alabak gizonak edo emakumeak izatea nahiago zuten; gehienek erantzun zuten nahiago zutela “gizonak izatea, emakumeek asko sufrituko luketelako”. Kosta egiten zaie kolpe, irain eta tratu txarrik gabeko bitzta bat imajinatzea, haurtzarotik pairatu izan duten egoera izan delako. Amaren edo aitaren kolpeetatik senarren edo bizikideen kolpeetara pasatu ohi dira. Horregatik, “normaltzat” hartzen dute egoera hori. Indarkeria normala ez

dela ulertzeak, emakumeek gizaki gisa duten balioa bereganatzeak, norberaren duintasuna bereganatzeak indarkeriaren gaitzespen aktiboa eta bizimodua aldatzeko gogoia dakartza. “Orain ulertu dut garrantzitsua naizela; gainerakoek jakin dezaten baino ez da behar”² esan zuen gurekin lan egin zuen emakume nekazari batek.

- **Sozializatzeko-prozesuak, familia eta eskola bereziki**

XX. mendean emakume asko eskolatu ziren arren, ezin dugu ukatu eskola-programen bidez, eskolaren antolaketaren bidez, bi sexuen emaitzei buruzko itxaropenen bidez, interesen, ahalmenen eta emaitzen arabera bereizirik esleitzen dituen curriculum ezkutuaren bidez, eskolak desberdintasunak indartzen dituela.

Munduko emakume nekazari helduen multzo handi batek analfabeto izaten jarraitzen du, eta multzo handiago bat analfabeto funtzionala da.

Hezkuntza-sisteman sartzea lortzen dutenak eduki sexistak errepikatzen dituen hezkuntza-jardueraren mende daude, eta nesken –batez ere, landa-eremuetan eta eremu indigenatan dauden neska– helburuak eta aukerak mugatzen dituzte, genero-eredu diskriminatzaileak errepikatuz.

Halaber, emakumeak zientzia- eta teknika-ikasketetara sartzea mugatzen duten aurreiritziak eta estereotipoak daude oraindik, eta hori indartu egiten du emakumeak esparru horretara heltzea ahalbidetzen duten politika publikorik ezak.

Emakumeak nahiz gizonak baldintzatzen dituzte aurreiritzi eta estereotipo horiek, baita feminotasunaren eta maskulinitasunaren inguruko ideiak ere. “Leuntasun, sentikortasun, goxotasun, samurtasun, ahultasun” eta antzeko hitzekin lotzen dira emakumeak; gizonak, ordea, “indar, indarkeria, erresistentzia, gogortasun, hoztasun, botere” eta antzeko hitzekin lotzen dira, eta haurtzaroaren hasieratik estereotipo horiekin bat egiten duten jarrerak izateko eskatzen zaie. Jostailu ezberdinak ematen zaizkie, panpinak emakumeei eta orgatxoak mutili, eta zenbait jarrera zigortzen edo baimentzen dira, besteak beste, emakumei negar egitea baimentzen zaie eta gizonei ez zaie uzten.

² Andamayoko komunitateko emakume nekazaria, Cusco, Peru.

- **Lanaren sexu-banaketa**

Gero eta emakume gehiago sartzen da lan-merkatuan. Hainbeste gehitu dira, ezen LANEk lan-indarraren eta enpleguaren “feminizatzeaz” hitz egiten baitu mundu mailan. Baina LANEk berak, azken txostenean, egiaztatzen du lan-roletan emakumearen bazterte-ereduak betiketozen direla; izan ere, gizonak betetzen dituzte goi-kalifikazioko eta goi-balio erantsiko postu gehienak.

Soldata-ezberdintasunari dagokionez, munduan emakumeek gizonak baino askoz gutxiago irabazten dute (%50 eta %80 artean dago alde hori). Kezka-garriak dira, batez ere, garatze-bidean dauden herrialdeetan dauden soldata-ezberdintasunak; izan ere, herrialde horiek erabaki dute lan-indarrean oinarritutako esportazioak handitzea, eta lan horietan handia da emakumeen portzentajea.

Lan-bazterketa, soldata-berdintasunaren arloko legedi eraginkorrik eza eta gutxieneko soldata duinak izateko premia dira emakumeek lan-munduan dituzten arazo nagusiak.

Herrialde gehienetan, lan ordainduetan ematen dute denbora gehiena gizonetakoek. Emakumezkoek, ordea, gizonetakoek ematen duten denboraren erdia ematen dute ordaindu gabeko lanetan.

Lan informalaren arloan, soldata eta egoera penagarriak pairatzen dituzte askotan emakumeek.

- **Informazioa eskuratzeko mugak**

Ezberdintasun sozial, ekonomiko, kultural eta politikoaren eta genero-ezberdintasunaren arazoaren ondorioz, gizakien sektore askok –batez ere, pobrezian daudenak eta emakumeak– oztopo asko dituzte beren eskubide politikoak, hiritar-eskubideak, osasun-eskubideak eta abar erabiltzeko. Emakume askok ezin dute herritartasun osoa izan hezkuntza-maila baxua dutelako, informazioa eta botere-postuak eskuratzeko aukerarik ez dutelako edota beren eskubideak zein diren ez dakitelako.

Informazioa eskuratzeko aukerarik ezak ondorio asko dakartza. Esaterako, zer eskubide dituzten ez dakitenez, emakumeek ezin dituzte eskubide horiek defendatu, inork ez baitu defendatzen ezagutzen ez duena; era berean, osasuna zaintzeko arazoak dituzte, bereziki sexu- eta ugaltze-osasuna. Horrek eragina du bizitza-kalitatean eta gaixotasun- eta heriotza-tasa altuetan.

Informazioa eskuratzeko aukerarik ezak dakartzan ondorioen artean dago kargu publikoetan eta erabakiak hartzeko guneetan, kudeaketa publikoaren ikuskatze-prozesuetan eta kontuak eskatzean emakumeek duten ordezkartza urria.

- **Komunikabideetan hedatzen den emakumeen irudi estereotipatua**

Komunikabideetan hedatzen den emakumeen irudia da ekitaterako beste arazo garrantzitsu bat. Sexu-objektua, azalekoa, gizonen mendekoa eta gizonen zerbitzura dagoena, bigarren mailako rola betetzera behartua, etxeko lanak betetzera bultzatua, mundu pribatuan murgildua eta mundu publikotik urrundua. Emakumearen rol horiek dira hedatzen dituztenak. Beren borondatez bereganatzen dute eta, are gehiago, defendatu egiten dute irudi hori emakume askok.

V. ZER BEHAR DA BERDINTASUNERAKO BIDEAN?

Berdintasunerako bidea ez da soilik bide legal, politiko, edo ekonomiko bat. Pertsonen (batez ere, emakumeen) subjektibitate abiartzen den eta subjektibitate horretan finkatzen den prozesua ere bada. Emakumeak ez badira konturatzeko beren balioak eta duintasunak eta ez badituzte beren eskubideak ezagutzen, ez dira gai izango beren bizitzan jabe izateko beharrezkoak diren prozesuak abiatzeko, eta oinazez eta etsipenez pairatu behar izango dituzte ezberdintasun-eta jazarpen-egoerak eta horiek dakartzaten tratu txarrak eta indarkeria.

Gizaki eta emakume gisa duten balioa ezagutzeko prozesua norberaren barnean hasten da, eta hortik garatzen dira pairatzen dituen kanpoko ezberdintasun-egoerak aldatzeko gaitasunak.

Emakume ezagun askorekin (horietariko asko agintariak) izandako lanen esperientzia luze baten ondorioz baieztatu dezakegu hori. Gurekin lan egin duten emakume askoren ustez, generoari buruzko diskurtsoak ez du esanahi handirik, edo ez du ezer esan nahi. Teoria batetik abiatzeak, arazora kanpoko diskurtso batetik hurbiltzeak, diskurtso oso ona izanda ere, arazoez mintzatzeak testuinguru eta istorioetatik at, ez du errealitatea aldatzen eta ez ditu emakumeak aldatzarekin konprometitzen. Norberaren esperientziatik abiatu behar da, bizi izandakoaz mintzatu, oinazeak eta ametsak gogora ekarri eta esperientziak trukatu, errealitate ezberdinak irudikatzeak eta eraikitzeak ausartzeko.

Esan dugu guztion parte-hartzea beharrezkoa dela ekitatea eraikitzeak. Emakumeek beren buruari buruzko balio gutxiko irudi bat badute, ez badira

beren balioaz jabetzen, ez badute emakume izatea baloratzen, ez da lortuko parte-hartze hori. “Ez zait gustatzen, asko sufritzen da”³, “zertarako ikasiko dute emakumeek? Ardiak larratzera joan daitezela, hori esan zidaten gurasoek”⁴ edo “nik ez dakit, ezin naiz jolas horretan jolastu, ez dakit ez irakurtzen ez idazten, ez nintzen eskolara joan”⁵ eta antzeko esaldien barruan norberari balio gutxi ematea eta bizitzaren eta etorkizunaren ikuspegi ezkorra daude.

VI. SEXISMOA HEZKUNTZAN

Gure kulturaren eta, bereziki, zilegitzat hartzen diren maskulinitasunaren eta feminitasunaren elementu tradizionalak osatzen eta indartzen dituen hezkuntza-erakundearen modu baztertzailan aritu da beti sexu-ezberdintasunaren estereotipoa, eta horrek emakumeentzako kultura eta giza gutxiagotasuna dakartza.

Hezkuntzaren ezaugarri sexistak identifika ditzakegu, “ageriko curriculum” deritzonengan, hau da, transmititzen diren eta testu-liburuetan islatzen diren eza gutzen esparruan, ikasgaien edukietan, hautatutako gaietan, eta “ezkutuko curriculum” deritzonengan, hau da, pertsonen arteko harremanetan, eskolako jardunean transmititzen diren jarreretan eta balioetan.

Curriculum batean zein bestean, emakumeen baztertze-balioak, –arauak eta– ekintzak daude; izan ere, gizonetikiko mendekotasun-egoerak errepikatzen dira.

Esaterako, eskolan erabiltzen den hizkera erabat “maskulinoa” dela egiazta dezakegu. Neskak ez dira existitzen. “Mutilak” baino ez dituzte aipatzen irakasleek. Maskulinoan idazten dira arauak eta testuak. Tratamendua ezberdina da; gizonak eta emakumeak ikaskuntza ezberdinetara, ikasketa edo helburu ezberdinetara bideratzen dira. Pentsaera logiko-matematikora eta zientzia-ikerketara bideratzen dituzte gizonetzkoak. Emakumeak, ordea, arlo sozialetara eta hizkuntzarekin lotutako arloetara.

Eskolan gizonak aurkezten dira historiaren autore gisa, zientzia eta teknologiaren sortzaile gisa eta kulturaren eraikitzaile gisa; emakumeek esparru horietan izan dituzten rolak eta egin dituzten ekarpenak, ordea, ezkutatu egiten dira.

³ Pacchantako nekazaritza-komunitateko emakume gaztea, familiako ama, Quispicanchi, Cusco, Peru.

⁴ Elvira Kccaari. Nekazaritza-komunitatea, Ccatcca, Quispicanchi, Cusco, Peru.

⁵ Ocongateko familiako ama, Cusco, Peru.

Eduki sexistak erakusteaz gainera, ikur sozial sexistak ere transmititzen dituzte eskolako testuek, eta ume eta gazteentzako identifikatzeko erreferentzia bihurtzen dira. Etxeko roletan, etxeko jarduera eta ekintzetan (bigarren mailakoak beti) agertzen dira emakumeak testuetako irudietan; gizonak, berriz, garrantzi eta esker on handiagoko zereginak betetzen agertzen dira.

Eredu tradizionalen oinarritutako prestakuntza jaso dute irakasleek, automatikoki errepikatzen diren balio tradizionalekin. Haientzat harrigarria da ohartzea rol baztertzaila eta sexista betetzen ari direla, oro har, nahi gabe. Eskolan sustatzen diren jolasak aztertzen direnean, ikus dezakegu neskatilari emakumeen etxeko rola ordezkatzeko duten gune eta jarduerak eskaintzen zaizkiela, eta mutikoei, berriz, jolas emankorragoak edo profesionalagoak egiteko aukera ematen zaiela.

Irakasleen arteko harremanetan ere jarrera baztertzailak ikusten dira. Gainerakoak koordinatzeko, zuzentzeko edo ordezkatzeko aukeratu ohi dira gizonak, nahiz eta eskolako langile gehienak emakumeak izan. Irakasleek normaltzat hartzen dituzte jarrera horiek, eta lehenengo eskola-urteetatik ikasten dituzte.

VII. NOLA SUSTATU GENERO-BERDINTASUNA HEZKUNTZATIK?

Irakasle askok generoari buruz dituzten aurretiko ideietatik abiatuko gara.

Ezin diogu ekitatearen gaiari ekin ez badugu onartzen zein diren pertsonak gai horren inguruan dituzten ideiak. Errealitate horretatik eta aurretiko ideia horietatik abiatuta soilik eztabaida daitezke, zalantzan jar daitezke edo kritikatu daitezke, eta azkenean eraldatu; eta argi utzi behar da eraldatze hori ez dela prozesu teoriko, kognitibo edo intelektual bat, prozesu afektibo bat baizik.

Adibide gisa, azaldu nahi dugu Perun gurekin lan egin zuen landa-eremuko irakasle-talde batek gai horren inguruan aipatu zuena. Item hauetan taldekatu ditugu elkarrizketa hartatik irten ziren erantzunak, hezkuntza-prozesua abiatzeko oinarriak finkatzeko balio dutelako.

- Bertaratutako gehienek, nola gizonak hala emakumeek, sexua eta generoa nahasten dituzte.
- Generoaz mintzatzeak etengabeko gatazka-giroa sortzen duelako aurreiritzia da nagusi.
- Eguneroko bizitzan, giza eskubideak emakumeentzat baino gehiago gizonentzat direla onartzen dute.

- Aipatzen dute bazterketa ez dela arauz agertzen, gizartearen ohituraz baizik.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek aldatu behar ditugun ohiturak daudela onartzen dute.
- Indarrean dagoen genero-sistemak zenbait jarrera baztertzailer mozorrotzen ditu.
- Sexuari buruzkoak dira arau horiek, ez generoari buruzkoak.
- Gutxi dira oraindik beren eskubideen jabe diren emakumeak.
- Gatazkatsutzat hartuak dira beren eskubideen alde borroka egiten duten emakumeak.
- Emakumeek muga gehiago dituzte eremu guztietan, batez ere landa-eremuetan.

Arestian aipatutako horretatik abiatuta, ikus daiteke irakasleekiko hezkuntza-jardueran lehenengo etapa bat dagoela, beste taldeetara heda daitekeena. Ideia berriak edo ikaskuntza berriak eraikitzea oztopatzen duten aurretiko zenbait ideia eta ikaskuntza “eraistea” dakar horrek. Hots, okerrak diren eta bazterketa eta ez-ekitatea indartzen dituzten aurretiko ideiak “ahazten” ikastea. Ezinbestekoa da metodologia egoki bat bermatzea hori gerta dadin. Praktikatik abiatu behar da, eta ez teoriatik, norberaren esperientziatik, eta ez besteenetik, subjektibitate berri baten eraikitzetik, eta ez arrazionaltasun instrumentaletik, norberaren historiatik, eta ez besteen historiatik.

Horixe da abiapuntua, hortik gainditu behar dira genero-estereotipoak eta pertsona bakoitzaren gaitasun eta ahalmenen aitortzea, haien sexua edozein dela ere. Subjektu historikoekin identifikatu behar dira neska-mutilak, eta kulturaren eraikuntzan egin dituzten ekarpenak aitortu behar dituzte, gizon eta emakume bakoitzaren bizitza-esperientzia datozen belaunaldientzako ondaretzat hartuz. Emakumeek gizateriaren garapen ebolutiboari egindako ekarpena aitortu behar da.

Emakumeen aldeko ekintza positiboak garatzea ere erronka bat da, zenbait abiapuntu orekatze aldera, aukera eta abantaila berdinak eskainiz.

Ekitatea sustatzen duen hezkuntza ez-sexista lortzeko, irakasle ez sexistak behar dira: gai horretan dituzten pentsaerak eta sentimenduak kritikoki ebaluatzeko gai direnak, neska-mutilen arteko harreman berdinak eraikitzea eragozten edo oztopatzen duena aldatzeko eta guztientzako aukera berdinak eskaintzeko kon-

promisoa har dezaten, jarrera baztertzailak aldatzeko eta harreman berdinak sustatzeko konpromisoa hartzen duten irakasleak, alegia.

Ondoren, ageriko curriculum nahiz curriculum ezkutua aldatzeko gai izango dira, eta horretarako konpromisoa hartuko dute irakasle horiek, baita testu-liburuetako eduki sexistak ezabatzeko eta eskola eraldatzeko ere, eta hala, gizartea eraldatzen lagunduko dute.

VIII. EKITATERAKO HEZTEA HELBURU DUTEN NAZIOARTEKO ERAGINAK

Globalizazioko eta nazioarteko eragin-trukeko garai hauetan, politika publikoko eredu garrantzitsuak sortzen ari dira, hala nola: (1) Guztiontzako Hezkuntzaren helburuak, jatorrian Jomtien (Tailandia) 1990eko Guztiontzako Hezkuntzako Munduko Biltzarrean adostuak eta Dakarren (Senegal) 2000n berriro onartuak, eta (2) NBEak “Milurtekoko Garapen Helburuak” izeneko dokumentuan identifikatutako hezkuntza-ereduak (UN, 2000).

Generoari dagokionez, eskolarako sarbidearen berdintasuna eta berdintasun hori gauzatzea dute ardatz **Guztiontzako Hezkuntzaren** helburuek. “Kalitatezko” hezkuntzari badagokio ere, irakurmenera, idazmenera, aritmetikara eta oinarrizko gaitasun praktikoetako jarduera akademikora mugatzen dira. Guztiontzako Hezkuntzan gizonen eta emakumeen arteko matrikulan baino ez dago generoa berdintasun-arazo gisa. Eskola ez da agertzen genero-sistemak gizartean eragiten dituen gune garrantzitsuen artean.

Eskola formalari dagozkien Guztiontzako Hezkuntzaren helburuak jasotzen dira funtsean 2000ko “**Milurtekoko Garapen Helburuetan**”. Baina “jabetzea” zertan den definitzen du. Ikuspegi feministatik, funtsezko irizpide bat da kontzeptu hori. Emakumea banakako nahiz taldeko aldaketaren agente gisa eraikitzeari dagokio; gizartea eraldatzearen aldeko ulermen, ikuspegi eta mobilizazio politiko berria eskatzen du. Lau adierazletan laburbiltzen du NBEaren txostenak: eskolatzeko aukera; alfabetatzea; nekazaritzakoak ez diren sektoreetan ordainduta lan egiten duten emakumeen kopurua, eta estatu bakoitzeko kongresuan postuak betetzen dituzten emakumeen kopurua.

Azken adierazle horrek emakumeen botere politikoa islatzen badu ere, besteek ezer gutxi esaten digute jabetuntzari buruz. Eskolatzeko aukera eta jabetuntza nahasten badira, eraldatzeko tresnaren mitoa izaten jarraituko du eskolak. Boterea ematen du ezagutzak; baina eskola publikoko ezagutza formalak ez ditu

beti ematen genero-sistema zalantzan jartzeko elementuak. Beste adierazleak, nekazaritzakoak ez diren sektoreetan ordainduta lan egiten duten emakumeen kopuruak, ekonomista ero baten produktua dirudi, dirua kobratzeko aukera jabe-kuntzako seinale argizat hartzen baitu. Emakumeen lanetan eta soldatetan dau-den asimetriak alde batera utzi baino ez du egiten horrek. Emakumea horietaz jabetu arte eta mobilizatu arte ezin dira zalantzan jarri asimetria horiek.

Emakumeen hezkuntzarako helburu estrategiko hauek ezarri ziren Beijiingeko Emakumeari buruzko munduko IV. biltzarrean:

- Ezagutzak jasotzeko eta gaitasunak garatzeko emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatzea.
- Emakumeen analfabetismoa ezabatzea.
- Lanbide-heziketa, zientzia eta teknologia eta etengabeko trebakuntza izateko emakumeek duten aukera handitzea.
- Hezkuntza eta trebakuntza ez-baztertzailak garatzea.
- Gizonaren eta emakumearen portaera sozial eta kulturalen ereduak aldatzea.
- Bakearen kultura sustatzea.
- Neskak eta emakumeak etengabeko hezkuntzan eta trebakuntzan hasteko eta horretan jarraitzeko aukerak handitzeko neurri positiboak hartzea.
- Irakaskuntzaren erreformak egiteko eta horien aplikazioaren jarraipena egi-teko baliabide nahiko ziurtatzea.

Garapen iraunkorrerako eta pobrezia murrizteko estrategia eraginkorretarako ezinbestekoa da gizonen eta emakumeen arteko aukeren ekitatea. Milurtekoko helburuak ez dira beteko emakumeen jabe-kuntzarik gabe, eta aldaketak ez dira iraunkorrak izango haien gaitasunen garapenik gabe eta haien eskubideak indarrean ez badaude.

Emakumeek ez ezik, gizarte osoak ere bizitza duinagoa eta askeagoa izateko nahitaezkoa da genero-ekitatea bultzatzea; izan ere, gizarte osoarengan hainbat inpaktu ekonomiko, sozial, psikologiko eta kultural ditu emakumeen jarduerak. Kofi Annanen hitzetan, “ez dago neskatilen hezkuntza baino tresna eraginkorra-gorik garaperako”.

IX. GIZA ESKUBIDEETAN ETA GENERO-EKIMATEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA, SUBJEKTIBITATEAK ERALDATZEKO PROZESU GISA

Ezberdintasuneko baldintzen eraldatze-prozesua azkartzeko, ezinbestekoa da giza eskubideetan eta genero-ekimatean oinarritutako hezkuntzaren rola. Nahitako prozesua izan behar du, duintasuna eta, gizon edo emakume balioa, gizaki balioa, pertsona balioa aitortzen duten pentsaera, sentimenduak, jarrerak eta balioak garatzera bideratutakoa. Elkarbizitza, errespetua eta albokoak baloratzeko moduak sortzera ere bideratuta dago, batzuen eta besteen arteko berdintasuneko harremanak eraiki ahal izateko.

Helburu hauek lortzera bideratzen da mota horretako hezkuntza bat:

- a. Gizakien bizitza eta duintasunaren errespetua eta defentsa sustatzea.
- b. Nortasun pertsonalaren eta kulturalaren garapena eta norberarenganako eta albokoarenganako errespetua erraztea; ezberdinak dira, baina oso baliotsuak biak.
- c. Pertsona bakoitzaren autoestimua eta bizitzak duen balioaren kontzientziaren garapena sustatzea.
- d. Herritar zuhur eta kritikoak sortzea, erabakitzeko ahalmena dutenak, errespetuan eta giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza sozial demokratikoa eraikitzen parte hartzeko gai direnak.
- e. Kultura demokratikoa eraikitzen laguntzeko, pertsonarenganako errespetua, ekitatea, elkartasuna, justizia, askatasuna, tolerantzia, parte-hartzea eta antzeko ezagutzen, jarreraren, balioen, jokaeren eta portaeren garapena sustatzea.
- f. Bizitza sozial eta politikoan eta instituzio eta erakunde sozialetan parte-hartze arduratsua sustatzea.
- g. Giza eskubideak babesten dituzten eta generoen arteko ekitatea sustatzen duten legezko arau eta tresna nagusiak eta erakunde nazionalen zein nazioartekoaren ezagutza zuhurra sustatzea.

• Pertsona ardatz gisa

Generoen arteko ekitatea sustatzen duen hezkuntza-prozesu baten ardatza da pertsona, horrek dakarren guztia kontuan hartuta: hau da, pertsona izate hutsa-

gatik zentzua eta balioa duen subjektu bakar eta errepikaezina, bere ezaugarri material, etniko, sozial, kultural edo beste mota batekoak edozein direla ere.

Pertsona ardatz gisa berreskuratzen duen pedagogia “kontrako korronteko” pedagogia bat da; izan ere, aurre egiten dio dirua eta ondasun materialak edukitzea –izatea baino gehiago, edukitzea– balio nagusitzat dituen gizarte globalizatu batetik datorren presio sozialari.

Ikuskera humanizatzailea izango da mota horretako hezkuntza baten ikuskera nagusia, pertsona berreskuratzea eta sendotzea eta haren duintasuna errespetatadin nahi duena. Pertsona baino ezin izan daiteke eskubideen jabe, bere buruaren errealizazioaren jabe eta bere bizitza pertsonal eta sozialaren jabe.

Gizakiak pertsona izateko eskubideaz jabetu daitezten eta giza eskubideak bete daitezten kondizioak sortzeko gaitasuna lor dezaten hezkuntza sortzen lagundu behar dugu hezitzaileok. Balioaren beraren kontzientzian, besteenganako errespetuan eta duintasunaren eta eskubideen defentsan hezten duen hezkuntza. Baita elkarbizitza demokratikoko estiloen esperimentazioan hezten duena ere, gizakiak ezberdinak izan arren duintasunean eta balioan berdinak izan daitezten.

• **Gizakiaren osotasuna berreskuratzeko erronka**

Ikaskuntza “holistikoa” da tolerantziaren, ekitatearen eta giza eskubideen ikaskuntza, izaki osoa konprometitzen duen ikaskuntza: adimena, gorputza, afektibitate, izaki esperientziaduna, banako izakia eta soziala.

Osotasun hori bereganatzen badugu eta pertsonak funtsean ondokoekin (eta haientzat) bizi garen izaki sozialak garela onartzen badugu soilik lortuko dugu, tolerantzia, giza eskubideak eta genero-ekitatea barneratzeaz gainera, ondoko pertsonekin bizitzea. Banakako nahiz taldeko esperientzia eta pertsonaren izate eta zeregina konprometitu behar ditu horrek.

• **Samurtasunaren pedagogia**

Marko kontzeptual bat –“giza eskubideen balioa, genero-berezitasunekin” deritzen balio-multzoa– bereganatzea eskatzeaz gainera, hezitzaile izateko “estilo” eta “modu” bat, ezaugarri bereziak dituen praktika pedagogiko bat, bereganatzea ere eskatzen du giza eskubideetako eta genero-ekitateko hezitzailea izateak.

“Neska-mutilak hezteko artea” omen da pedagogia. Eguneroko praktikan, hezitzaile gisa inguruan ditugun pertsonekin eraikitzen ditugun giza harremanetan

islatzen da arte hori. “Samurtasunaren pedagogia” da giza eskubideetako eta genero-ekitateko hezkuntzaren pedagogia, hau da, maitasunez, sentikortasunez hezteko eta irakasteko artea, ondokoak ez mintzeko, pertsona behar bezala tratatzeko, izaki baliotsu, paregabe, bakar eta errepikaezin moduan tratatzeko.

Gizaki guztiak ezaugarri ezberdinak gabela baina duintasunez eta eskubidez berdinak gabela onartzen duenez, bereizkeria baztertzen du pedagogia horrek; izan ere, aniztasuna giza harremanen aberastasun gisa onartu eta balioesten du. Arraza-, sexu-, hizkuntza-, kultura- edo erlijio-ezberdintasuna aitortzen, onartzen eta positiboki balioesten du hezitzaileak. Gainera, intelektualki aitortzeaz gainera, praktikan erakusten du inork ez duela beste pertsona batek baino gehiago balio eta, aniztasunean, pertsonen eragin-trukea aberasten dutela ezberdintasunek.



EZTABAIDARAKO ETA EKINTZARAKO GALDERAK

- Zure ustez, zer elementu dira berritzaileak testuan?
- Zerk harritu zaitu?
- Zer gehituko zenuke?
- Egin mapa kontzeptual bat, eta identifikatu mapa horretan genero-
ezberdintasunak sortzen dituzten arrazoiak eta ezintasun horren
ondorioak. Zer ikusten duzu? Alderatu eta hobetu zure erantzuna
taldekideekin.
- Zer uste duzu egin dezakezula zuk egoera hori hobetzen
laguntzeko?
- Hezkuntzarako Munduko Kanpaina ezagutzen duzu? Genero-
berdintasuna lortzeko egin duena ezagutzen duzu? Informa zaitetz
eta zabal ezazu informazioa horri buruz.
- Zer erantzungo zenieke testuan “emakumeek ezin dute...”
esaten duten emakumeei?
- Egin ezazu iritzi-gutun bat testuak sortu dizkizun iritziekin.
- Zure taldean generoaren gaiari ekitea oztokatzen duten alderdiei
buruzko ideia-jasa bat egin zure taldekideekin. Zer alderditan bat
egiten duzue eta zein ezberdintzen dira testuan irakasle-taldeak
lortutakoetatik?

EZTABAIDARAKO ETA EKINTZARAKO GALDERAK

- Gaur, hemen, zer ahantzi edo ikasi behar genuke gizonezkook eta emakumezkook?
- Ezagut itzazu zure inguruko ezberdintasunen errealitateko datuak, eta aztertu testu honetan agertzen diren alderdiak: analfabetismoa, langabezia, diru-sarrerak... eta nabarmentzekoa iruditzen zaizuna.
- Aztertu komunikabideetan agertzen den informazioa: albisteak, publizitatea... ezberdina da gizonezkoen eta emakumeen agerpena? Zertan bereizten dira?
- Egin ezazu eskolan ikasi dituzun pertsonaia historikoen zerrenda bat. Aztertu zenbat diren gizonezkoak eta zenbat emakumezkoak, eta haien zer ezaugarri azpimarratzen diren. Aldera itzazu datu horiek emakumeen institutuek edo elkarte feministek emandako informazioarekin.
- Zabaldu zure iritziak eskura dituzun komunikabideen bitartez: prentsa, irratia, internet...



EMAKUME BAKEGILEAK

*CINEP**

Kolonbiako departamentu ederra da Meta, herriaren ekialdean dago eta urte osoan 30-35 ° arteko tenperatura izan ohi du batez beste. Hegazti eta loreen aberastasuna eta biodibertsitatea bereziak dira eta horietariko asko exotikotzat hartzen dira munduan; petrolio eta ur-baliabide ugari ditu. Mendien ikaragarria, lautaden handitasuna eta ibaien eta ur-jauzien zolitasuna nahasten dira hango paisaia. Aberastasun natural horietan bizitzen, herritar zuriak, beltzak eta mes-tizoak aurkitzen ditugu, hau da, kolonizatze-prozesu luze baten ondorio den kulturen nahastea.

Lurralde hori “El Llano” da eta, gehienbat, herrialdeko hainbat lekutatik etorritako kolonoak bizi dira bertan, XX. mendearen hasieratik “etorkizun hobe” baten bila lurralde horretara joandako kolonoak, alegia. Hala ere, oso zaila gertatu da “etorkizun hobe” hori; izan ere, urte askotan indarkeria soziala, politika eta lurraldea kontrolatzeko borroka, pobrezia, lekualdatze behartuak eta hilketak izan dira nagusi.

Duela hamarkada bat baino gehiago CINEPek¹ emakumeekiko proiektuak bideratu ditu. Zeregin garrantzitsua dute emakumeek: gizartearen egitura berreraikitzea. Gizonezkoak dira gerrara joaten direnak. Heriotza-tasa handitzen du horrek. Hala, gauetik goizera, emakumeak familiako buru bihurtzen dira, gizonezkoek egiten zituzten lanak eta funtzioak bete behar dituzte eta beren lanak ere egiten dituzte.

* Jesusen Konpainiak Kolonbian duen GKE bat da Herriko Ikerketa eta Hezkuntza Zentroa (CINEP). www.cinep.org.co

Amak, alabak, emazteak, gerraren biktimak, gizarteko sektore baztertuetatik etorriak, hezkuntza, lan ordaindua, osasuna, gobernu-erabakiak izateko aukera oso gutxi dituztenak dira, beraz, emakume horiek. Eta hala, ama-alargun, “ahizpa-ama” umezurtz, “neska-ama” egoera horretan, bizirautearen eta berreraikitzearen arazoei aurre egiten diete, gatazka amaitu arte eta hura amaitu ostean.

Gerrak zeregin hori ematen badie, haiek prestakuntza eta trebakuntza behar dituzte, harremanak izateko, lankidetzan jarduteko eta elkartasunak garatzeko bide berriak esperimentatzea lortzen ahalbidetzen dien kultura sortzen laguntzeko. Horregatik abiatu zen duela bi urte Emakume Bakegileak proiektua, emakumei elementu berriak eskaintzeko haien alderdi gizatiar, politiko eta tekniko-produktiboan.

Bederatzi udalerritako emakumeak elkartzen dira proiektu horretan. Gatazka konpontzeko irtenbideak aurkitu nahi dituzte eta, hartara, beren beldur, larrialdi, zalantza, itxaropen eta seme-alabenganako maitasunaren erdian, adorea ematen diote elkarri proiektuan amore ez emateko. Haientzat, beren eskualdeak bizi duen indarkeria- eta gatazka-egoeraren aukerak eraikitzea proiektu kolektiboak aurrera ateratzea da, bakarkako proposamenak egiteaz aspertuta baitaude; gizarte ustel horretan baliabideen erabileran gardentasunez eta txukuntasunez aritzea errealitate posiblea dela erakustea da, beren adibidea hartuta; udalerritako beste talde sozialentzako adibide bihurtzea da, helburua hori izan gabe; izan ere, bi urte eta gero, beren enpresak hazi egin dira eta kideek lehenengo egunean zuten irrika berberarekin jarraitzen dute.

Trebatzeko eta produzitzeko elkartze-prozesu horretan, beren buruarekiko eta beren kideekiko konfiantza handitu dute, eta beren arteko eta komunitatearekiko leialtasuna garatu dute emakume horiek. Herrikideen sinesgarritasunaz eta errespetuaz gain, administrazio publikoarena ere lortu dute udalerrian. Enpresa emankor arrakastatsuen eredu dira gaur. Erakutsi dute zailtasunei trebeziaz aurre egiten dietela komunitatearen, gatazken eta pertsonen arteko harremanen kudeaketetan. Komunitatea eraikitzeko prozesua bultzatzen du horrek.

Nortasun bat eraiki ondoren, beren isiltasunari, samurtasunari, gatazkaren ordezkarietaren alde egiteari, zentzu bakegileari, pazientziari eta, batez ere, gauza txikietan gauza handiak hautemateko gaitasunari “bidea zabaltzen” dietenean konturatzen dira gatazka kudeatzeko beste modu batzuk badaudela. Halaber, talde-lanari esker, bizitza-kalitatea hobetzeaz gainera emakume, herri-

tar eta enpresaburu gisa duten duintasuna eta gaitasuna balioetsi dira. Horrek aukera eman die tokiko gobernuko zenbait erabakitze-eskabidetan parte hartzek, eta beren familien mirespena eta errespetua lortu dituzte.

Esperientzia hori hasi eta bi urtera, arrainen, arrautzen edo kosmetikoen ekoizpena taldean kudeatzeak dakartzan komunikazio- eta antolaketa-zailtasunak gainditu dituzte taldeek. Hiru taldeetako emakume batek ere ez du prozesua utzi. Hainbat arazo gainditu dituzte, esaterako, uholdeak, lehorreak eta, batez ere, gerra. Enpresak ekoizten duenaz gozatzen ari dira, pozik.

Bestetik, merkatuan erraz sartu dira produktuak, tokiko eskaera handituz doa eta emakume-sareak hartzen dituen bederatzi udalerrietara esportatzeko probak egiten ari dira. Horrekin batera, beren semeek gerra ez den beste lan bat aurki dezaten nahi dute.

Parte-hartzaileek bizitzeko aukera bihurtu dute Emakume Bakegileak proiektua. Emakume izatea eta familian duten zeregina aitortzetik abiatzen da, tokiko dinamiketan proiektatzeko eta eskualdean aurrera egiteko. Prestakuntza gizatiar, tekniko eta politikoari eta enpresa-prestakuntzako prozesuari esker bete ahal izan da hori. Baina, beharbada, emakume horiek duten itxaropena eta bizitza beren eskuetan dagoela amets egiten jarraitzeko gaitasuna izan dira proiektuaren eragile nagusiak.



GLOSARIOA

ESKUBIDE EKONOMIKOAK, SOZIALAK ETA KULTURALAK: Nazio Batuen Gutunean (San Francisco, 1945) adierazitako printzipioen arabera, gizakien familia osatzen duten kide guztiei dagozkien duintasunaren eta eskubide berdin eta besterenezinen aitortpena dute oinarri gizateriaren askatasunak, justiziak eta bakeak. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (Paris, 1948) arabera, ezin da gauzatu gizaki askearen ideala, beldurretik eta miseriatik askatua, baldin eta ez badira sortzen gizabanakoak bere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, bai eta eskubide zibil eta politikoez ere, gozatzea ahalbidetuko duten baldintzak. Eskubide ekonomikoei, sozialei eta kulturei (EESK) esker lortzen dute pertsonak bizi-maila egokia. Eskubide horiek honako alor hauek hartzen dituzte: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; enplegua lortzeko aukera eta enplegu-baldintza egokiak; sindikatzea; gizarte-segurantza; familiari eta bereziki haurrak babesteari lehenetasuna; kulturaz gozatzea; elikadura; etxebizitza; heziketa; osasun fisiko eta mentala; ingurumen osasuntsua. Badago Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itun bat, 1976an indarrean sartu zena eta 150 herrialdek baino gehiagok berretsi dutena.

[www.unhchr.ch]

[www.choike.org]

GENEROA: kontzeptu hori ideia honetatik sortu da: *femeninoa* eta *maskulinoa* ez dira gertaera naturalak eta biologikoak, eraikuntza kulturalak baizik. Horren arabera, historikoki menderatze maskulino eta lotura femenino gisa eratu den eraikuntza kulturala da generoa. Sexu-hierarkizatze hori sistema

sozial eta politiko patriarkaletan gauzatu da. Simone Beauvoir-ek zioen bezala, “ez da emakume jaiotzen, izatera iritsi baizik”.

Cobo Bedia, Rosa: *10 palabras clave sobre mujer, dirigido por Celia Amorós*, Editorial Verbo Divino, 1995

Hegoa (2006) “*Emakumeak munduko biltzarretan. Tokian tokikotik globalera*”

GENERO-EKITATEA: ekitatea da bakoitzari merezi duena ematera bideratzen gaituen gogoaren egoera. Ekitatearen eta berdintasunaren printzipioak elkarri oso lotuta daude, baina ezberdinak dira: berdintasuna modu absolutuan aplikatzen duen gizartea bidegabea da, pertsonen eta taldeen arteko desberdintasunak ez dituelako kontuan hartzen. Baina pertsonak berdintzat onartzen ez dituen gizartea ere ez da bidezkoa. Horrenbestez, genero-ekitatea egoteko, berdintasuna izan behar da, beti ere emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak onartuta, “(...) legeen eta politiken aurrean emakumeek eta gizonak tratamendu berbera jaso behar dutela esan nahi du, eta familietan, komunitateetan eta gizartean baliabide eta zerbitzu berberak izan behar dituztela; gizonen eta emakumeen artean abantailak eta ardurak banatzeko garaian inpartzialtasuna eta justizia egotea ekartzen du horrek. Sarritan, zehazki emakumeei zuzendutako proiektuak eta programak behar izaten dira, desberdintasunak desagerrarazteko.”

GIZA GARAPENA: giza garapena da pertsonak beren gaitasunak ugaritzea bizitza osoago bat bizi ahal izateko. Gaitasunak diogunean adierazi nahi dena da, batetik, pertsona izan daitekeena edo egin dezakeena (“aukerak”), eta, bestetik, zer izango edo egingo duen (“lorpenak”); baina ez horrenbeste zer ondasun dauzkan. Luze bizitzea, heziketa zabalagoa, duintasuna eta norbere buruari errespetua izatea dira pertsonak eskura duen aukera-sorta zabaltzea ahalbidetzen duten elementuak. Ondasunak ezinbesteko baldintza dira, baina ez nahikoa aukera horiek zabaltzeko. Giza garapena, beraz, prozesu bat eta helburu bat da aldi berean.

Sen, Amartya K. (1999) “Desarrollo y libertad”

[www.pnud.org]

GLOBALIZAZIOA: eraldaketa sozial, ekonomiko eta politiko batzuen bidez, izaera globala emanez, munduko herrialdeen arteko komunikazio eta mendekotasun geroz eta handiagoak dakarren merkatu-, gizarte- eta kultura-bateratzea da globalizazioa. Hala, ekoizpen-moduak eta kapital-mugimenduak planeta mailan finkatzen dira, eta gobernuak, berriz, eskuduntzak galduz joaten dira sareko gizartea deitutakoaren aurrean.

GUZTIONTZAKO HEZKUNTZAKO MUNDUKO BILTZARRA: nazioarteko komunitateak, Nazio Batuen erakundeak eskatuta, mundu mailako garapenaren erronka nagusiak aztertzeko nazioarteko batzar eta goi-bilera batzuk jarri zuen martxan, 90eko hamarkadan. Batzar horien bidez, arauen esparrua zehaztu da, eta nazioarteko konpromiso batzuk hartu dira, garapenari buruzko gaiei ekiteko. Hezkuntzari dagokionez, Guztiontzako Hezkuntzako Munduko Biltzarra (Jontiem, 1990) da nagusia. Biltzar horretan, hezkuntza oinarrizko giza eskubidea dela berretsi zen, eta herrialdeak premiatu zituzten pertsona ororen oinarrizko ikaskuntza-beharrei (irakurtzeko, idazteko eta kalkulua egiteko oinarrizko trebetasunak) erantzuteko ahaleginak areagotzera. Horretaz gain, Ekintza Esparru bat definitu, eta 2000rako helburuak eta estrategiak zehaztu zituen. Foroan, 165 herrialdek eta 160 erakundek parte hartu zuten. 1990eko batzarrari jarraipena emanez, Dakarren (Senegal) bildu zen nazioarteko komunitatea, eta oinarrizko helburu neurgarri batzuk onartu zituen 2000n, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako Hezkuntza Eskubidea 2015erako betetzea bermatzeko.

Entreculturas y ALBOAN (2005) "La AOD en educación a examen. Un análisis de la cooperación española: 1999-2004"

[<http://portal.unesco.org>]

HERRITAR BARNERATZAILEA: hiritartasunaren adiera berriek prozesu soziala azpimarratzen dute, eta aipatutako elementuei beste bat (osagarria eta funtsezkoa) eransten diete, beti ez bada ere: komunitateko partaide izatearen sentimendua. Testuinguru horretan sortzen da barneratzeko terminoa, hiritartasunari lotua. Horren arabera, hiritartasunerako sarbideak hasierako egoera legal bat baino gehiago eskatzen du. Izan ere, gehiengoak duten taldeen jarrekin eta jokabideekin gutxiengoaren barneratze-sentimenduetan eragin dezakete.

ALBOAN (2006) "Hiritartasunetik hiritartasunera eta hiritartasunetik herritartasunera. Ibiltako bidea"

JABEKUNTZA: prozesu bat da, zeinetan pertsonak beren gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzen dituzten, gizarteko talde moduan, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak bultzatzeko. Bestela esanda, jabetzeak pertsonak gaitzea dakar, zertarako eta beren boterea aldarrikatu, onartu eta erakusteko.

[www.fride.org]

LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA (LANE): Nazio Batuen erakunde espezializatua da, eta nazioartean onartutako giza eskubideak eta lan-eskubideak eta justizia soziala sustatzea du helburu. 1919an sortu zen, eta Versaillesko Tratatutik oraindik ere irauten duen emaitza garrantzitsu bakarra da; tratatu horretatik sortu zen Nazioen Elkarte. 1946an, Nazio Batuen lehen erakunde espezializatua bihurtu zen. LANEk: 1. laneko nazioarteko arauak egin eta hitzarmen edo gomendio moduan ematen ditu (arau horietan, oinarrizko lan-eskubideen gutxieneko baldintzak zehazten dira); esaterako, sindikatu-askatasuna, sindikatuko kide izateko eskubidea, negoziazio kolektiborako eskubidea, bortxazko lana ezeztatzea, aukera- eta tratu-berdintasuna eta abar; 2. Lan-eremuko hainbat arlotarako laguntza teknikoa ematen du; adibidez, prestakuntzarako, enplegu-politikarako, kooperatibetarako, gizarte-segurantzarako, laneko segurtasunerako eta osasunerako eta abar; 3. enplegu-emaileen eta langileen erakunde independenteak garatzea sustatzen du, eta, horretarako, prestakuntza eta aholkularitza teknikoa ematen ditu. Nazio Batuen sistemaren barruan, LANE da hiruko egitura duen erakunde bakarra; langileek, enplegu-emaileek eta gobernuek maila berean parte hartzen dute erakundean, administrazio-organoen lanetan.

[<http://www.ilo.org/public/spanish/about/index.htm>]

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (NBE): 1945ean sortu zen gobernu arteko erakunde da, eta helburu hauek ditu: nazioarteko bakeari eta segurtasunari eustea eta munduko herri guztietan giza eskubideak eta garapen jasangarria sustatzea –nazioarteko lankidetzarako eta alde anitzeko lankidetzarako mekanismoen bidez–. 192 estatu kide ditu.

Hegoa (2006) "Emakumeak munduko biltzarretan. Tokian tokikotik globalera"

[www.un.org/spanish]

SEXU-DISKRIMINAZIOA: kulturalki sexu jakin bati esleitu zaizkion ezaugarrien arabera pertsonen jasotzen duten tratu- eta aukera-desberdintasuna da, baita gizonezkoak emakumezkoari buruz egiten duen balioespenaren arabera ere. Gure gizarteetan, genero-diskriminazioak muga ezberdinak ezartzen dizkie gizonei eta emakumeei bizitza publikoan eta familia-esparruan garatu eta integratzeko. Emakumeak azken eremu horretara mugatzen ditu batez ere. Genero-desberdintasuna dela eta, emakumeek arlo publikoan gutxiago parte hartzen dute, eta ez dute gizonen maila bera ekoizpen-baliabideetan. Hori dela eta, erabakiak hartzeko eta boterea erabiltzeko aukera gutxiago dute emakumeek.

[www.oit.org.pe/ipcc]